

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/
UPV-R.A.L.V. / EUSKALTZAINDIA**

1998.eko Hitzarmena

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA/UPV
R.A.L.V./EUSKALTZAINDIA**

1998.eko Hitzarmena

Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Pello Salaburu Etxeberria jaunak eta Euskaltzaindiko burua den Jean Haritschelhar jaunak, Bilbon bildurik, 1998ko abenduaren 11an, honako hau erabakitzen dute:

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Euskaltzaindiak lankidetzaz *hitzarmena* sinatua dute elkarlana sustatzeko eta bi erakundeetako kideentzat interesgarri izan daitezkeen lanen argitalpenak bultzatzeko. Lan horietarako 7.729.495 ptako diru kopurua jarriko du EHUK eta Euskaltzaindiak jartzen dituen baliabideak beste horrenbestean baloratzen dira. Hala egitea erabaki zuen erakunde bien Jarraipen batzordeak bere azkeneko bilkuran, 1998ko uztailaren 22an.

Honako hauek dira diru honekin bideratzen diren lanak:

- | | |
|--|-----------|
| 1. <i>Toponimia Medieval del País Vasco</i> - III (H-O) | 2.595.840 |
| 2. <i>Toponimia Medieval del País Vasco</i> - IV (P-Z) | 2.595.840 |
| 3. <i>Morfología del verbo auxiliar bajonavarro occidental</i> | 2.537.815 |

7.729.495 pta.

Bestalde, EHUko euskal ikasle eta irakasleen prestakuntzari eta gaurko-tzeari begira, eta araugintza berria zabaltzeko Euskaltzaindiak duen egitasmoari begira, guztiz interesgarria ikusten da ondoko lanaren argitalpena bultzatzea: EHUko Euskara Institutuak prestatu duen *Euskaltzaindiaren Araugintza Berria. Hobekuntza Ikastaroa* (1998) liburua.

Dokumentu hau sinatzen denean ordainduko dio EHUK Euskaltzaindiari 7.729.495 pezetako kopuru hori, aldi bakarrean.

Eta hau sinatzen da Leioan eta Bilbon, 1998ko abenduaren 11an.

Pello Salaburu Etxeberria jauna,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektorea

Jean Haritschelhar jauna,
euskaltzainburua